

URTEKO HAMAZAZPIGARREN IGANDEA B

Lehen irakurgaia

(*Elizeok ogiak ugaltzen*)

Erregeen bigarren liburutik 4, 42-44

Gosetea zen orduan herrian.

42 Uzta berritik, norbaitek ekarri ziozkan Elizeo, Jainkoaren gizonari, hogei garagar-opil eta bihi berria zaku batean.

Elizeok erran zuen: “ Eman jendeari, jan dezaten. ”

43 Mutilak ihardetsi zuen: “ Nola huntarik eman ehun gizoneri?”

Elizeok berriz: “ Eman jendeari, jan dezaten, hau baitio Jaunak: Janen dute , eta ondarrak geldituko dira.”

44 Orduan eman zioten, jan zuten, eta ondarrak gelditu ziren, Jaunak erran bezala.

Elizeo profeta Iparraldeko erresuman bizi izan zen 850 eta 800 Jesu Kristo aitzin. Haren ixtoria irakurtzen da goxoki ipuin pollit bat bezala. Eli profet handiaren dizipulua izana zen. Huna zer dion Ben Siraken liburuak, 200 urte Jesu Kristo aitzin : « *Eli zirimolan desagertu zenean, haren izpirituaz bete zen Elizeo. Bere bizitzan ez zuten buruzagiek ikaratu, nehork ere ez menpean hartu. Deus ezinezkorik ez zen harentzat, heriotzeko loaldian ere profeta izan zen.* »

Elizeok ez du bizkitartean idatzirik utzi, bainan egin zituen mirakuiluek eta erran zituen suzko hitzek Izrael hunkitu zuten. Izraeleko erregeak ezagutzen zituen eta beldurrik gabe egiak erraiten ziozkaten, eta haren hitzak onartzen zituzten, baitzakiten « *Jainkoaren gizona* » zela. Ardura erasiak egiten ziozkaten, zeren Iparraldeko erresuma idolatrian bizi baitzen. Politikan ere sartzen zen. Egun batez ausartatu zen, Akazias erregea bidaian zelarik eta Elkargoa ez zuelakotz errespetatzen, haren partez bertze errege baten, Jehuren, sakratzera.

« *Jainkoaren gizon* » bezala ezagutua zen mirakuilu ainitz egiten zuelakotz. Hemen biga aipatuko ditugu : Xunamiten familiako haur bat piztu zuen.

Bada ere ixtoria pollit bat, olioarena. Alarguntsa bat zorrez itoa zen eta han zituen hartzedunak ondotik, sosaren galdez; nahi ziozkaten bi semeak hartu esklabotako, sosik ez zuelakotz. Elizeori dei egin zuen, laguntza eske. Hunek erran zion : « *Zer egiten ahal dut ? Zer ontasun duzu ?* » harek errepostu : « *Ez dut etxean olio xorta bat baizik nere buruaren gantzutzeko.* » Zinez pobrea zen, eta alarguntsa zelakotz ez zuen gehiago usain onik ezartzen eta olio ontzitegian zagon. Elizeok erran zion : « *Zoazi, eska auzoeri ontzi hutsak, ahal dituzun guziak. Sar zaite gero etxean zure semeekin eta hets atea. Ixur olio ontzia guzietarat eta, bete ahala, ezar denak bazter. Ontzi guziak bete ondoan gelditu zen olio-jarioa.* »

Aipa dezagun igande huntako ogien ugaltzearen mirakuilua. Elizeok mirakuilua egin zuen jende pobren fagoretan, zeren Izrael herriak ardura idorteak jasaiten baitzituen. Ez dakigu garagar hogoi ogiek zer handitasun zuten; ez zitaken segurrenik aski denendako, zeren mutilak, bizpahiru aldiz, asmo hori burutik kendu nahi baitzion : « *Nola huntarik eman ehun gizoneri ?* » Elizeok errepostu egin zion : « *Eman jendeari, jan dezaten, hau baitio Jaunak : janen dute eta ondarrak geldituko dira.* » Mutilak aski zuen obeditzea, zeren Elizeok ausartzia ez zuen bere baitarik jalgitzen : « *Hurbil da Jauna dei egiten diotenenganik, egiaz dei egiten dioten guzienganik.* »

Leloa: **Jaunak eskua zabaltzean,
badugu zer jan ausarkian.**

**Zuhauk eginek, Jauna, goraipa zaitzatela :
Zure gizonak eskerrak zuri, zor bezala.
Zuk erresuman duzun ospea diotela,
Aipa ere bai zure besoan den ahala.**

**Guzi guzien begiak daude, Jauna, zuri,
Eta heieri behar orduan zuk janari.
Zure eskua duzu zabaltzen, zuk, Jainkoa,
Eta badute hasdun guziek nahikoa.**

**Zuzen da Jauna, bere bidetan beti zuzen;
Egin lanetan zoin dena bihotz den agertzen.
Hurbil da Jauna hari otoizka daudeneri,
Hari otoizka, bihotza zintzo eta garbi.**

Izai profetak Izraelen fedea hunela laburbiltzen zuen : Jainkoa urrikalmendu da eta bere herriari dei egiten dio erranez : *“bihozberri zaite”*. Salmo hau Jainkoari emaiten zaion errepostua da : *“Goretsi dut zure izena mendez mende.”* Salmo alfabetikoa, erran nahi baita bertset bakotxa alfabetako letra batetik hasten dela, A-tik Z-era. Esker onezko salmoa da, Jainkoaren elkargoagatik. Bizi guzia A-tik Z-era Jainkoaren amodioan igeri dugu.

Izaik lehen irakurgaiaren erraiten zuen : *“Zerua lurretik gora da : berdin gora ene bideak zuen bideetarik.”* Salmoak oihartzun egiten dio : *“Handia Jauna eta osoki goresgarria : gure Jaunaren hauditasa ezin neurri.”* *“Handi”* hitza, salmoetan, erregeaz erraiten dena da. Bainan errege hori ez da lurrekoen idurikoa. Boteretsua da, bai, bainan amodioaren botereaz : gure zoriona du nahi. *“Jauna samurtasun eta urrikalmendu da, berant-haserre eta maitasunez betea”*. Ederragorik ezin daiteke erran Jainkoaz.

Salmo huntan irakurtzen dugu ere : *“Zuzena da Jauna bere bidetan, beti zuzen.”* Bainan gaurko Ebanjelioak kondatzen dauku etxeko jaun batek bere langile guziak berdin pagatu zituela, goizean hasirik lanean ala astirian. Nun da zuzentasuna? Amodioan. Besteak maite balinbaditugu guharen burua bezainbat, besteei egin ongi az bozkariatuko gira.

Bigarren irakurgai

(Jaun bat, sineste bat, bataio bat)

Jondoni Paulok Efesako girixtinoeri 4, 1-6

Haurrideak,

- 1 nik, Jaunarengatik preso nagonak, eskatzen dautzuet ukan duzuen deiari doakion bezala bizi zaitezten.**
- 2 Izan apal, ezti eta jasanakor; elkar jasan zazue maitasunez.**
- 3 Berma zaitezte Izpirituak emaiten duen batasuna begiratzera bakearen lokarriz.**
- 4 Bakarra da gorputza eta bakarra Izpiritua, zuen deiari dagokion esperantza ere bakarra den bezala.**
- 5 Bakarra Jauna, bakarra fedea, bakarra bataioa;**
- 6 bakarra guzien Jainko eta Aita, guzien gaintetik dagona, guzien bidez ari eta guzien baitan bizi dena.**

Egunean eguneko baktxaren eginbideak aipatu aitzin, Paulok Jainkoaren asmoa zabaltzen du, ohi duen bezala. Asmo hori dei bat da, bataioaren bidez bete behar duguna gure bizi guzian : *“Eskatzen dauzuet ukan duzuen deiari doakion bezala ibil zaitezten.”*

Leialtasun horri esker dugu Eliza eraikitzen. Bainan “Eliza” aipatzeko partez, hemen gauza beraz ari da “gorputzaz” hitz egitean : *“Bakarra da gorputza eta bakarra Izpiritua.”* Lerro hauek guziek ikusgai biziki ederra emaiten daukute Elizaz. Mixterio hunen aipatzeko Paulok bi hitz erabiltzen ditu : gorputza eta eraikina. Laburki erranez : Eliza gorputz bat da etxea bezala eraikitzen dena. Gorputza bizi da, hazten da, handitzen. Irudi bera erabiltzen du Paulok beste gutun batzuetan ere : *“Anitz izanagatik, Kristorekin elkaturik gorputz bat egiten dugu eta guziak batzu besteen menbro gira.”* (Er 12;5) *“Kristoren gorputza zirezte, eta zuetan baktxa gorputz horren menbro.”* (1Ko 12,27)

Eraikin hortan ez dute denek betebeharrak bera. Badira Apostoluak, profetak, misiolariak, erakasleak...Hots, gorputz batean menbroak bezala.

Pauloren begietan Elizako “zerbitzari” desberdin horiek Jainkoaren dohain bat dira, Izraelgo Legea bezala. Lehen Elkargoan Legea herriaren gidaria zen. Orai, Elkargo Berrian gidari horiek “*minixtroak*” dira, erran nahi baita Elizan zerbitzu bat dutenak, baktxa bere herrunkan. Kasu boterea sar ez dadin hor artean, zeren Legea libertatearen biderik segurena bezala hartua baitzen. Pauloren gutun hunek susmatzera emaiten du Korintoko girixtino anaidian tirabirak bazitezkeela baktxaren eginbeharrari buruz. Moisek herriari libertatea ekarri bazion Egiptoko esklabogotik ateraz eta Legea emanez, zenbatez gehiago Jesusek bere Elizako “zerbitzarien” bidez : *“Horrela, herri saindua moldatua da, fededunen zerbitzuko lanak bete daitezten eta Kristoren gorputza eraikia izan dadin.”* Egun batez gizadi guzia *“Kristo buru bakarra baitan”* bildua izanen da. (Ef 1,10)

Ebanjelioa

Alleluia, alleluia

**Profeta handi bat agertu zaiku,
eta jautsi zaio Jainkoa bere jendeari.**

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik 6,1-15

- 1 Jesus joan zen Galilea edo Tiberiadeko itsasoz bestalderat.**
- 2 Jendalde handia jarraitzen zitzaion
erriak sendatuz egiten zituen ezaugarriak ikusten baitzituzten.**
- 3 Jesus mendirat igan eta han jarri zen bere dizipuluekin.**
- 4 Hurbil zen Bazkoa, Juduen besta nagusia.**
- 5 Jesusek, begiak altxatu eta ikusi zuen jende ainitz heldu zitzaiola.
Erran zion Filiperi:
“ Non erosiko dugu ogia, haueri jatera emaiteko?”**
- 6 Frogatzeko erran zion hori,
ongi baitzakien berak zer egingen zuen.**
- 7 Filipek ihardetsi zion:
“ Berrehun denarioren ogia ez litzateke aski,
baktxak puxka bat ukaiteko.”**
- 8 Bere dizipuluetarik batek,
Zimun Petriren anaia Andresek erran zion:**
- 9 “ Bada hemen bost garagar-ogi eta bi arrain dituen mutiko bat;
bainan zer da hori hainbesterentzat?”**
- 10 Jesusek erran zuen: “ Jarraraz zazue jendea.”
Belar ainitz bazen leku hartan, eta jarri ziren denak.**

- Bost milako bat gizon bazen.**
- 11 **Orduan Jesusek hartu zituen ogiak,
eta esker onezko otoitza egin ondoan,
partekatu zituen jarriak zirenen artean;
berdin arrainak ere, nahi zuten bezainbat.**
- 12 **Ase zirenean, Jesusek erran zioten dizipulueri:
“ Bil ondarrak, deus gal ez dadin.”**
- 13 **Bildu zituzten, eta hamabi saski bete,
bost garagar-ogietarik jan zuteneri gelditu ondarrez.**
- 14 **Jesusek egin ezaugarria ikusirik, jendeak hunela zion:
“ Hau da zinez mundurat etortzekoa den Profeta.”**
- 15 **Jesusek, ordea, baitzakien indarrez ereman nahi zutela
errege egiteko,
mendirat joan zen berriz, bakarrik.**

Jesusek ogiak ugaltu eta, herria nola berotu zenetik ikusten da zenbatetaraino jendea Mesiasen beha zagon. Ikusi zuelarik Jesusek eriak sendatzen zituela, « *Jendalde handia jarraitzen zizaion eriak sendatuz egiten zituen ezaugarriak ikusten baitzituzten.* » Mirakuluzko apairuaren ondotik hasi ziren sinesten : « *Jesusek egin ezaugarria ikusirik, jendeak hunela zion : « Hau da zinez mundurat etortzekoa den profeta.*

Asaldura handia zitaken, zenbait egun Bazko aitzin. Jendea orroitzen zen nola Egiptoko esklabotasunetik libratua izan zen eta pentsatzen zuen Mesiasetik betiko libertatea ekarriko ziola. Hortako idazten duke Joanik : « *Hurbil zen Bazkoa, juduen besta nagusia.* »

Jesus, jendekin, mendirat joan zen : « *Jesus mendirat igan zen eta han jarri zen bere dizipuluekin.* » Hemen, « mendia » zinbolikoa da, Galileako ur bazterrean ez da mendixkarik baizik. Dudarik gabe Joanik ulertarazi nahi dauku Izaik aipatua zuen Mesiasen apairuaren tenorea jina zela : « *Sion mendian, Jaun guziahaldunak apairu nasaia emanen du, herri guzientzat, haragi gizen eta arno xahar, haragi gizen bikain eta arno xahar garden apairua.* »

Filipek, hamabietarik batek, galdegin zion : « *Non erosiko dugu ogia, hauierri jaterat emaiteko ?* » Joanirek eransten du : « *Frogatzeko erran zion hori, ongi baitzakien berak zer egiten zuen.* » Zertan ezartzen ditu Jesusek apostoluak frogatan ?

Judu batendako, Jesusendako bezala, Jalgitzaren esperientziaren oroitaraztea zen, zeren Sinaiko denbora izan baitzen « *frogapena* », Deuteronomeko liburuak dion bezala : « *egoera latzean ezarri zintuzten frogatzeko, zuen barneko xedeen ezagutzeko.* » Filipek ez du menturaz berehala ulertu Jesusek nahi zuela haren fedea frogatu, zeren errepostu zentzudun hau egin baitzion : « *Berrehun denarioren ogia ez litzateke aski, bakotxak puska bat ukaiteko.* » Andrek errepostu : « *Bada hemen bost garagar ogi eta bi arrain dituen mutiko bat, bainan zer da hori hainbesterentzat ?* » Filipek eta Andrek ahantzia zuten Elizeo profetaren ixtoria.

Profetaren ixtorian gauza bera gertatu zen haren mutilak erran ziolarik, nola ehun presuneri jaterat emaiten ahal zen ogi puxka batekin. Elizeok ez zuen hitz hoieri kasurik egin. Jesusek gauza bera egin zuen eta erran : « *Jarrarazkitzue* ». Eta zendako Joanik emaiten du xehetasun hau : « *Belar ainitz bazen leku hartan.* » Zeren artzain onak arta hartzen baitu artaldeaz : « *Jarri ziren denak, bost milako bat gizon bazen.* » Lau ebanjelistek erraiten dute neurritz kanpoko delat bost ogi eta bost mila jende, erakusteko zer zen Jesusen ahala.

Joanik erraiten du : « *Orduan Jesusek hartu zituen ogiak, eta esker onezko otoitza egin ondoan partekatu zituen.* » Hemen irakurtzen ditugu azken afariko hitzak.